

4. Sumeriar-euskal ipuinaren antzezpena

Felix Zubiaga Legarreta



4.1. Nor

a) Ikasketak / Studies / Estudios

- Filosofia eta Erromanikar Letretan Lizentziatua da Deustuko Unibertsitatean, Unamuno y las lenguas peninsulares (1973) tesiarekin. Doktorautza Ikasketak (1996-1998) *Vascuence y mitoanálisis* lana egin zuen

b) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

- Honezkero, liburu hauek argitaratu ditu: *Vascuence y mitoanálisis* / Euskararen ereduak / Jainkoa eta gizakia euskararen oroitzan / Euskal mito-erritoak eta euskara / Apellidos y nobleza / La onomástica, oído de la prehistoria o el vascoeuropeísmo / Analogía, arte del lenguaje, según el *vascuence*. / Antiguo Testamento del *vascuence* / Euskararen jakinduria / Euskara mito bizia / Origen y desarrollo del lenguaje (según el *vascuence*) / Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan / Euskara bere bitan (psikoaztertuz) / *Vascuence*, inconsciente colectivo / Amarekin topo / Dic. Etimológico según el *vascuence* Hitzen jatorria
- Literatura arloan ipuin, antzerki, eleberri eta poesia lanak egin ditu, zenbait sari jasoz: *Errosarioen kuzkuak*, *Agora*, (Donostia Saria), *Kalean andre*, *Zure argi kliskak* (Arrese Beitia Saria, 1986) eta *Oi Emmanue!* (Lizardi Saria 1991)

c) Experience / Eskarmentua / Experiencia

- Erretiroa hartu zuenetik hizkuntza arloko ikerketa lanekin jarraitzen du
- Euskarari eman dizkio bere maisutzako urterik gehienak Lauaxeta Ikastolan
- Urte asko euskararen ikerketan ekiten dio Eleiker Bildumaren inguru *Vascuence y mitoanálisis* jarraipenean, metodologiak etxeko etnografia, toponimia eta euskara bera Antzinako Sortalde Hurbileko mitografiarekin konparatzen dituela.

d) Harremanetarako / Contac / Contacto

fzubiaga[abildua]orue[puntu]biz

4.2. Ipuina: Norbere eskuz hartuneko "zuzentza"

Ondoren, Felix Zubiagak "Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan" liburuan jasotako ipuin biak ditugu. Batetik, berak, sumeriar kulturatik jasotako ipuin bat eta, bestetik, Jose Mari Satrustegi hizkuntzalari eta ikerle nafarrak Sakanan jasotako Mattin Totela. Bien antzekotasuna ikusita, Felixek dioen moduan, harrigarria ez ezik, sortuburu bera izan behar dute ipuin biek.

Esan beharrik ez dago ipuin bi hauek oraingo egoera sozioekonomikoa eta justizia falta deskribatzeko ezin hobeak direla.

Herriko jujeak zuzenbiderik egiten ez dutenean, nora jo? Greziar iketeia eratan eskakizuna bilatu, ala "asmoz eta jakitez txikiak handia bentzuten" jakinduriaz? Norbere eskuz, zuzena egin, baina jainko zuzentzaren izenean, Nippurreko txiroak bezala edo norbere oldez, Sakanako Mattin Mottelak bezala?

Harrigarria da nippurtar eta napartar txiro bion ipuinen egiturek duten antza, toki batetik bestera aldatu kulturaren zantzuetariko bat bai-da eta ez beranduko kopia. Nippurtar txiroak bere ordu txarretan, naparrak bezala, ezin zezaketen zuzentasun asko itxaron legezko arduradunengandik, arduradunok kanpotarrak eta euskal kulturatik urrun zeuden jendea baitzen edo urian eman ohi den zuzenbidea ez izan baserriko auzietara heltzekoa. Nuffer eta nafar izenak ere susmogarriak dira, ipuinen egitura bera aztertu aurretik.

Nippurreko txiroarena idazkia Ka. VIII aurretiko denarren, ipuin bezala, sumeriar inperioaren garaikoa da. Europan 1956 urtean argitaratu zan. Herri jakinduriaren gogoko izaten omen ziran holako ipuinak, izan ere sumertarrek kanpotarregandik jasaniko zaputzen aurkako mendekua dirudi: Gimil-Ninurta, Nippurreko txiroa, bere miseriaz nazkatu, bere soinekoak erantzi eta hiru urteko hauntza erosi zuan Nippurreko plazan. Goseak ase? Ez "auntza hartu eta alkatearen etxera eraman eta zerbait on eta eder opatuko diot" esan zuen. Gimil-Ninurta opariarekin alkateagana alai joan zan. Esku batekin hauntza burutik oratzen zuela beste eskua jasorik agur egin zion: "Enlil eta Nipurrek onets bezate alkatea". Alkateak erantzun zion: "Ze bidegabekeria jasan duzu? Zergatik erregalia hau?" eta Gimil-Ninurtak: "Egunoro jan gabe goserik etzunean nago" eta hauxe erabagi dut. (Hutsune txikia dago idazkian). Alkateak zera agindu zion atezainari: "Emaiok Nippurreko uritarrari ezur bat eta zain bat eta edarazi ezaioz hirugarren motako zerbeza, eta doala ate".

"Gimil-Ninurtak atetik urten zuenean, atezainari ba dinotso: "Emaiok "egun ona" zeure ugazabari jainkoen izenean eta esaiok hitzez hitz: "Egin didan irain honengatik bakarrik, hiru bider ordainaraziko diot". Alkateak barre egin zuen, baina "Gimil-Ninurtak errege jauregira begiak jasorik (zin dagit): "erregearen aginduz, printzeak eta agintariak erabaki zuzena hartuko dute".

Sakanako Mattin Mottela ere bizitzaz gogait egina zegoen, ez zuan atsegin aita zenarengandik jasotako mandazain bizibidea eta zirt edo zart egitea erabaki zuen. Mandoa saldu eta ofizioz aldatu. Tolosako perira joan eta mandoagatik eskatzen zuen guztia eskeini zion erostaile batek. "Egon zaitez hementxe ni etorri arte, berehala itzuliko naiz diruarekin -esan zion eta mandoarekin aldendu zen erostun hori". Mattin Mottela artegetu zan "Urde beltza (...) Mandoa goizean saltu eta egun guztian diruaren

zain (...) orain erakutsiko diot horri nor naizen ni (...) "Kontuz ibili- esan zion ostatukoak- Lapurra da eta bere antzeko bi morroiekin dago". -"Urde zikina! Hori ere badugu? Ez daki norekin dabilen! Lapurra baldin bada, hainbat hobe; hiru bider ordaindu beharko du nire mandoa".

Behin heroi zapuztu bion mendeku tranze berdintsuan, ordearen egitura eta erritmoa osatuz doa: Gimil-Ninurta "urre gorrizko mina" baten zorretan errege gurdi bat eta mando bat akuratu eta erregearen mandatariz jantzita alkateagana joan zen. "Zer dugu, ene jaun, gau erdian etortzeko?", "Zure jaun erregeak urre gorria Ekur Enlilen tenplora eroateko agindu bai dit".

Alkateak abegi onez hartu eta afari ederra prestatu zion. Afal ostea luzatu zen eta loak hartu zuen alkateak. Gimil-Ninurtak, itzarrik, kutxatila arakatu zuen. Alkateak esnatzean, kutxatila idekia ikusi zuen eta "altxorra ostu dute" hots egin, aurrean Gimil-Ninurta zutik zegoela. Gimil-Ninurtak, jantziak urratu, alkateari oratu eta eskua goradi, otoitza egiteari ekin zion eta burutik oinetara makilez jo zuen goitik behera. Alkateak, bakean utz ziezaion, urre gorrizko txanpon bi eta jantzi urratuagatik beste bi eman zizkion aurrezkiz.

"Gimil-Ninurtak atera zenean Tukulti-Enlil atezainari esan zion: "Igorri egiok hire ugazabari jainkoen agurra eta esaiok: "Egin didan irainagatik lehenengo zorra kendu diat. Oraindino bi gelditzen zaizkit!"⁴¹ .

Mattin Mottela ostatuko emaztearen jantzi apainenaz jantzi zen, "burua zapela harroska batekin estaliz, eskuzorro eta guzti, makila eskuan duela" lapurraren etxera. Atezainari galdetu zion. "Aizu gizon, etxean al dago nagusia". Halako emakumearen bisita ohartu bezain laster, ateak zabaldu, morroiak hegaleratu eta egonlekua prestatu zion. Gero nor lehenengo oheratu eztabaidatu zuten. Ugazaba, aurrea. Ugazaba oheratu zenean, bisitaria makilka hasi zitzaion bertan, "mandoaren jabe naiz!" esaten ziola. Lapurrak parkaeska: "Hor daukazu ohe ondoko kutxatila urrea. Zeutzat hartu eta zoaz, mesedez, hemendik" (...) "Nola joan zaik?" galdetu zion ostalariak. "Bihar berriro" erantzun zion mutilak.

Heroi zapuztu biak mozorrotu ziren, Gimil-Ninurta, erregearen mandatariaz eta Mattin Mottela, badaezpadako emakume itxuraz, biak gauez, zorduna, ohean zetzala, makilatzen dute, zordun biak barkaeska, bakean uztearren, dirua eskeintzen diote; bietan altxorren kutxatila aipatzen dela.

Gero Gimil-Ninurta bizargilearengana joan eta, Isingo medikuek ohi bezala, buruko ilea alde batetik mozteko eskatu zion. Brontzeko ontzia hartu eta mediku gisan, alkateagana joan zen. Nor zela? "Isineko mediku bat, azterlaria... Non gaixoa eta samina hara noa..." Alkateak zerutik bidalitakoa bezala, hartu zuen medikua. "Ene jaun, nere botika osagaiek ilunpean bakarrik egiten dute osoro emendioa", esan zion medikuak. Bronzea berotu, bost iltzetxoak behean. Osagaia hartzeko eskuak eta oinak lotu zizkion alkateari eta jarraian burutik oinetara makilatu zuen.

"Gimil-Ninurtak atetik urten zuenean, Tukulti-Enlil atezainari esan zion: "Igorri ezaio nagusiari jainkoen agurra eta esaiok: "Egin didan irainagatik birritan ordainarazi diot. Bat falta zait!"

Mattin Mottela bizarginarengana joan zen, "ofizioz bizargilea ere ba zen denbora berean" eta honela mintzatu zitzaion nafarra: "Zure kokotzeko hauntz bizar politaren antzeko zerbait nahi nuke neretzat. Sudurpeko bibotetxoa ere ez legoke gaizki" ospe haundiko ba-

tzar batera bait noa. "Zure jantzi beltza, kapela eta zaldia lagatzen badizkidazu, aurretiaz ordainduko dizkitzut". Zaldun patxaratsu bezala igaro zen gero Tolosatik harako lapurraren etxe aurretik. Morroiak dei egin zion eta gure "medikuak", hain ardurazko gaitza bazuen, baietz, ontzat hartzen zuela berau aztertzea. Jo! harritu zen medikua zaurituaren egoera ikustean. "Inguruko bi elizatako ur bedeinkatuak behar nituzke orain. Hirugarren batekoa ba dut neuk hemen". Zaurituak morroi biak bidaldu zituen ur bedeinkatuen bila. Medikua mozorrotuak orduan makila hartu eta "mandoaren jabea naiz. Nire eskuetan zaude berriro" esan zioneko, lapurra parkaeske hazi zitzaion eta diru gehiago bihurtzekotan. "Gaueko hamarretatik hamaiketara diru horren zain egongo naiz neure etxean. Zeuk ikusi komeni zaizun ala ez garaiz ibiltzea" zema egin eta utzi zezan.

Bigarren ordekoan ere mediku mozorro berdintsuetan ikusten ditugu heroiak, bizargilearen etxea eta ilearen edo bizarraren itxura berezia eta medikuen artemarteak non enplegatu eta aurreko bisitan zorduneei eginiko zaurietan, hain zuzen.

Gimil-Ninurta urduri zebilen hirugarren amarrua asmatzen, batari eta besteari begira eta orduan gastuen kitua eginberri zuen gizon bat ikusi zuen. Erregalia bat egin zion... "Alkatearen ataurrean oihu handia jaurti behar duk. Hik oihu egitean, hire atzetik joango dituk denak eta nik alkatearen atea jo eta "auntzaren jabea naiz!" esango diat". Esan eta egin: Gimil-Ninurta bera zubipean gorde zen. Zarata entzutean, alkatearen morroiak eta etxeko denak oihu egin zuenaren atzetik joan ziren, alkatea bera izan ezik.

"Gimil-Ninurtak, urten egin zuen zubipetik eta alkateari oratu eta erasoka, eskua jasota otoitza errezatu eragin zion eta burutik oinetaraino makilkadaz jo zion gorputza, oinaze bizia egotzirik. "Egin didazun irainagatik hiru bidarrez ordainduazi dizut".

Mattin Mottela Tolosara hurbildu eta ardo trukean bertsoak esaten zituen bat aurkitu zuan. "Adizak -esan zion- nahi al duk erdi koplaka ontzako urrea eskuratu?" Berarekin mandora igon eta jarraitzea baino ez zuen. Halako etxera heltzean, morroi bik urtengo zioten zaku banakin eta orduan "mandoaren jabe naiz" oihukatu behar zuen eta arre. Koplariak berea oihukatu eta egin artean Mattin Mottela erreka zuloan ezkutaturik gelditu zuan. "Mandoaren jabea naiz!" entzunik, lapur biak ohiugilearen atzetik laisterka ekin zioten, fardelak bertan behera utzirik. Mattin Mottela, zaldia eskutik zuela, erreka zulotik urten, lapur morroien zaku biak zaldiaren bizkarrera egariaz aldendu zen⁴⁶.

Hirugarren ekintzak ba du alderik Nippurreko txiroaren egitura lotuarekin, baina berdintasunak handiagoak dira: hirugarren pertsonaren laguntasuna, zordunaren etxekoak oihu hatera eta "auntzaren jabea naiz" edo "mandoaren jabea naiz" otsera asaldatzea, anartean heroi zapuztuak zubipean edo erreka zuloan izkutatzea eta, azken baten, justiziaren peskizatik era beretsuan ihes egitea. Tukulti-Ninurtak "orduan utzi zion eta mortura ihes egin zuen". Mattin Mottelak, guardia zibilak atzetik zebilzkiola jakinik, "egun batzuetarako ihes egitea erabaki zuen".

Ipuinok herri jakinduria bezala aipatuak dira eta "asmoz eta jakitez txikiak handia bentzuten" edo "azeriari azeri t'erdia" esakunak bermatzeko exenpluak dira. Arduradunak herriari zuzena eta zerbitzu ona egin beharrez, herriaren lepotik bizi direnean, herriko etsai bihurtzen dira eta adarra jo behar zaie eta, ahal bada, egurra dantzatu, "makilasaldarekin eroak ikasten" esaten bai-da, edo hako alkateak "bera

jotzeko makila berak eraman" esan bai-daiteke edo eta lapurrez: "lapurren festa laburre", "lapurrari lapurreta egin eta Jaungoikoak parre", etab.

"Txikiak handia" edo pobreak aberatsa edo ezinduak ahalduna, mendekoak agintaria, morroiak ugazaba, herri txikiak herri handiak, etab. aipatu genitzake. Nippur (Neffar) uria errege eta Enlil jainkoaren uri nausi izatetik batzuren eta bestetzuren agintepoko herrixka izatera heldu zen eta Napar (Nafar-Nefar) herria bere eskuko erresuma izatetik inoren meneko izatera etorri zan. Gurean bezala, Antzinako Sortalde Hurbileko hizkuntza arteziko hizkuneak aurkitzea nahiko arrunta da "Enki/emqy" "Enki/jakintsu" adibidez, edo kultura askoren altxor diren jakinduriako esakerak han eta hemen aurkitzea, baina harritzekoa da benetan milaka urteren luzean eta milaka kilometroren urruntan hemengo ahozko literaturan hango ipuin luze idatziaren arrasto ziurak ematea.